URTEAN ZEHARREKO XXIV. DOMEKEA - A

SARRERAKO OHARKIZUNA

Senideok: Jaunaren Eguna ospatzeko batuta gagoz. Jesus berbiztuak bere mahai inguruan alkartu gaitu eta bere errukia eta askatasuna eskeini nahi deuskuz.

Baina, Jaunaren errukia eta askatasuna ez dira geuretzat bakarrik. Gure bitartez, gizarte osora zabaldu gura dauz.

Beste alde batetik, urtero lez, ikasturte barri baten hasieran gagoz. Egunokaz, gure umeak eta gaztetxoak barriro euren ikastetxeetara bihurtuko dira; eta datorren hilean katekesia ere hasiko da. Ikasketak eta Katekesia askatasunerako bide bereziak doguz. Eukaristia honek bultzatu gaizala guztiok ume, gaztetxo eta gazteen fede eta giza-heziketa arloan geure ilusinoa eta ahalegina jartera.

Aita baten semeok / sinismen bakar bat dogunok /
anai artean batu garanok /
kantuz gatoz / kantuz zugana, Jauna.

— Seme gara, bai, baina seme izaten ba ete dakigu?
Anai gara, bai, baina anai izaten ba ete dakigu?
Seme izatera, anai izatera, Jauna, heldu nahi dogu.

DAMU-OTOITZA

Jaungoikoaren Domeka honetako Berbeak parkamenaren gaia dakarsku gogora. Jaungoikoak bere parkamena eskeintzen deusku; baina, baldintza bategaz: geu ere parkatzeko prest egon gaitezala beti.

- Jesus Jauna, errukiaren eta parkamenaren i**tur**ria zarana. ERRUKI, JAUNA.

- Jesus Jauna, gorrotoa eta bengantzea onar**tzen** ez dozuzana. KRISTO, ERRUKI.

- Jesus Jauna, alkarri parkatzeko adorea e**mo**ten deuskuzuna. ERRUKI, JAUNA.

HITZAREN LITURGIA

Sir 27, 33-28, 9:

Gaurko lehenengo irakurgaian gogoratuko jaku, Jaungoikoaren borondatea bilatzen eta beteten dauanak, bere lagunurkoari parkatu egiten deutsola.

Erantzun-Salmoa:



Erm 14, 7-9:
San Paulok esango deusku, bizitzan eta heriotzan, edozein egoeratan, Jaunarenak garala.

Mt 18, 21-35:
† Jesusen ikaslea danak, ez behin edo birritan bakarrik, beti egon behar dau parkatzeko gertu.
Goratu daigun Jauna, zutunik *"Aleluia"* abestuz.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Senideok: Jaungoikoak errukiz eta maitasunez onartzen gaitu. Eskatu daigun erruki hori gizon-emakume guztientzat:

- Gure eliz-alkartearen alde: bizi garan herrian eta gizartean, bake eta alkartasun seinale izan daiten. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

- Gorrotoz, alkarren artean konpondu-ezinik edo zatituta bizi diranen alde: Jaungoikoaren Berbeak alkar besarkatzera eta onartzera eroan daizan. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

- Ikasturte barria hastera doazen ume eta gaztetxoen alde, eta euren irakasle eta hezitzaileen alde: gizarte barri baten oinarriak landu daiezan. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

- Eukaristia hau ospatzen dihardugun guztion alde: entzun dogun Jaunaren Berbeak eta hartuko dogun Jesusen Gorputzak alkarri parkatzera eta guztiak maitatzera eroan gaizan. ESKATU DEIOGUN JAUNARI.

† Entzun, Aita, gure eskariak eta isuri zure maitasun betea gizon-emakume guztien gainera. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Jaunartzeko abestia

Hemen gaituzu, Jauna, ogiaren eske:
bizi behar ho**ne**tan ahuldu baikintezke.
Zure gorputz santua hartu nahi genduke.
Zu gabe bizi**tze**rik ezingo genduke.

Munduak behar badau eguzki-argia,
mendiko abe**re**ak iturri garbia,
orobat nahi badogu barruko bizia,
beharrezkoa **ja**ku zeruko ogia.

Jauna, zure grazia lagun dakigula
ogi hau jan da**gi**gun behar dan bezela.
Ez ahaztu txarrerako jarriak gauzela,
arren, zuzen ta **le**ial bizi gaitezela.

Oharrak